

AGINDUA, Ogasun eta Finantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzeko Legea aldatzeko Lege Aurreproiektua egiteko prozedurari hasiera ematen diona.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, xedapen horien gaiaren esparruan eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da prozedura hori.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen aurrekontuetako diru-sarreraren eta gastuen egoera-orriak onartzeaz gain, itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua zehazten du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, lege horrek aurrekontu orokorretara jotzen du eskola-unitate bakoitzeko ekonomia-moduluaren zenbatekoa ezartzeko, itunpeko ikastetxe horiek mantentzeko funts publikoen zenbateko globala banatze aldera.

Horren harira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen 25. artikulua (lege horren IV. eranskinak osatua) ekitaldi horretarako itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua zehazten du.

2024ko lehen seihilekoan, Hezkuntza Sailak akordioak sinatu ditu EAEko itunpeko ikastetxe pribatu guztien ordezkari diren patronal guztiekin, gizarte-ekimenekoak zein ikastolak izan. Akordio horietan, besteak beste, Hezkuntza Legearen helburuak eta jarduera-ildo estrategikoak benetan garatzen direla bermatzeko, Hezkuntza Sailaren titulartasuneko ikastetxeetako irakasleek jasotako soldatak eta itunpeko ikastetxeetako irakasleek jasotako soldatak parekatzea erabaki dute.

Hezkuntza Sailak itunpeko ikastetxe pribatuetako ordezkariekin parekatzeko sinatutako akordioek zehazten dutenez, parekatze-prozesua 2023ko ekitaldian hasten da, eta horrek 2022-23 eta 2023-24 ikasturteetako unitate itunduen eta ekitaldi horietako aurrekontu-legeetan onartutako modulu ekonomikoen arabera 2023ko ekitaldiarekiko atzeraeraginezko parekatze-konpromisoa dakar, eta 2024ko ekitaldiari dagokionez, 2023-24 eta 2024-25 ikasturteetako itunei lotutako parekatze-konpromisoa. Horrek guztiak ordainsarien aldaketa dakar berekin, sektore publikoko soldata-igoerei lotu gabe.

Azaldutako guztiagatik, Hezkuntza Sailak eskatu du Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 23/2022 Legearen 25. artikulua aldatzea, hartutako erabakiak betetze aldera.

Hori guztia aintzat hartuta, honako hau



EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Hasiera ematea xedapen orokor bat egiteko prozedurari. Xedapen horren edukia honako atal hauetan ezarritakoaren arabera izango da:

a) Xedea eta helburua.

2024ko lehen seihilekoan, Hezkuntza Sailak akordioak sinatu ditu itunpeko ikastetxe pribatuetakordezkariekin, eta akordio horien helburuetako bat da soldatak parekatzea Hezkuntza Sailaren titulartasuneko ikastetxeetako irakasleekin.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 88.2 artikuluan ezartzen duenez, hezkuntza-administrazioei dagokie lege honetan doakotzat jotzen diren irakaskuntzen doakotasuna gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea ikastetxeei. Eta zehazten du, itunpeko ikastetxe pribatuei dagokienez, irakaskuntzaren doakotasuna bermatzen duten itun-moduluei buruzko 117. artikulua 4. apartatuan, *«irakasleen soldatei dagozkien zenbatekoek... ahalbidetuko dutela haien ordainsaria mailaka parekatzea etapa bakoitzeko irakasle publikoen ordainsariarekin»*.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 26.2 artikulua ezartzen duenez, Hezkuntza Administrazioaren betebeharra da kasuan kasuko mailetan eta kalitate-mailetan doako irakaskuntza emango dela bermatzea, funts publikoekin finantzatutako ikastetxeen bitartez; halaber, 30.1 artikuluan xedatzen denez, Hezkuntza Administrazioak baliabide publikoak jarri beharko ditu derrigorrezko eta doako irakaskuntzen doakotasuna gauzatzeko.

Illo beretik, 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikulua 1. eta 2. apartatuetan xedatzen denez, itunpeko ikastetxe pribatuak sostengatzeko funts publikoen zenbateko osoa kasuan kasuko administrazioen aurrekontuetan ezarriko da.

Xedapen honen xede nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 23/2022 Legearen 25. artikulua aldatzea, Hezkuntza Sailak sinatutako akordioak betetze aldera, Hezkuntza Sailaren titulartasuneko ikastetxeetako irakasleek jasotako soldatak eta itunpeko ikastetxeetako irakasleek jasotako soldatak parekatzeko.

b) Bideragarritasun juridiko eta materiala.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 23/2022 Legearen 25. artikulua zehazten du itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua.

Hezkuntza Sailak itunpeko ikastetxe pribatuetakordezkariekin sinatutako parekatze-akordioek berekin dakarte ordainsarien aldaketa bat, sektore publikoko soldata-igoerei lotuta ez dagoena.

Lege-erreserba dago itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko modulu ekonomikoa ezartzeko. Hori dela eta, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legea aldatzeko lege-aurreproiektu bat egitea, 25. artikuluan salbuespen bat sartzeko: itunpeko ikastetxeetako langileen ordainsarietan aldaketak egitea, baldin eta aldaketa horiek gainditu egiten badituzte modulu ekonomikoetako langileria-gastuen osagaien zat ezarritako zenbatekoak, eta aldaketa horien helburua bada itunpeko ikastetxe pribatuetao irakasleen ordainsaria eta ikastetxe publikoen sareko irakasleena pixkanaka parekatzea.

2023ko eta 2024ko ekitaldietan adostutako parekatzearen ondoriozko ordainsari-diferentzien zenbatekoa 68.000.000 eurokoa da. Parekatze horren ordainketa zuzenean egitea aurreikusten da dagokion zentroaren titularrari, itunen bidez, ordainketa bakarrean. Ordainsari-diferentzia horiek ordaintzeko behar diren kreditu gehigarriak diruzaintzakoa gerakinen kontura finantzatzeko dira.

c) Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 23/2022 Legean izango da eragin bakarra.

d) Proposatutako erregulazioaren ildo orokorrak.

Arau honetan landuko diren edukiei dagokienez, azpimarratu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 23/2022 Legearen 25. artikulua aldatzera mugatuko dela, salbuespen bat sartzeko: itunpeko ikastetxeetako langileen ordainsarietan aldaketak egitea, baldin eta aldaketa horiek gainditu egiten badituzte modulu ekonomikoetako langileria-gastuen osagaien zat ezarritako zenbatekoak, eta aldaketa horien helburua bada pixkanaka parekatzea itunpeko ikastetxe pribatuetao irakasleen ordainsaria eta ikastetxe publikoen sareko irakasleena..

e) Arauen izapideak.

Euskadiko Aurrekontu Araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren IV. tituluan ezarritako arauet gain, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, XOEPL) ezarritako jarraibideak ere bete beharko dira. Kasu honetan, honako izapide eta txosten hauek egin beharko dira nahitaez:

- Ogasun eta Finantza sailburuak xedapenaren egitasmoari aldezt aurretik eman behar dion onarpena (XOEPLren 15.1 artikulua).
- Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Juridikoaren txostena (XOEPL, 15.4 artikulua).
- Legezketasunaren barne-kontrolari buruzko txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiarena (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzeo ekainaren 2ko 7/2016 Legeak 5.1.a) artikuluan eta apirilaren 9ko 71/2017 Dekretuak - Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko- 14.1.c) artikuluan arautzen duenarekin lotuta).

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomi Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina, urriaren 19ko 2/2017 Legegintza Dekretuz onetsiak, 25. artikulutik 27.era bitartekoak).

Horren harira, ez da ez beharrezkotzat ez egokitzen jo generoaren arabera eraginari buruzko txostena eta EMAKUNDE–Emakumearen Euskal Erakundearen txostena egitea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen 19. artikulutik 21. artikulura bitartean ezarritakoarekin bat etorrira (4/2005 Legea, otsailaren 18koa). Honako arrazoi hauengatik erabaki da arau-proiektua izapide hori betetzetik salbuestea: proiektuaren xedea indarreko arau bat aldatzea izatea; eta, aldaketa funtsezkoa ez izatea, emakumeen eta gizonen egoerari edota herritarren interes legitimoak dagokienez.

Era berean, ez da ez beharrezkotzat ez egokitzen jo Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak lege-aurreproiektuari buruzko txostena egitea, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren arabera. Horren harira, kontuan hartu da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen lege-aurreproiektua Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari jakinarazi zitzaioela 2023ko urriaren 20an.

f) Arau-testua euskaraz eta gaztelaniaz idazteko metodoa.

Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua xedatzen duena betetzeari dagokionez, sistema hau erabiliko da: saileko legegile batek idatziko du gaztelania/euskarazko bertsioa, eta saileko/IZO-IVAPeko itzulpen gintza-zerbitzuak gainbegiratu eta zuzenduko dute gero. Hori guztia egiteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak esleituko dira.

Bigarrena.- Jakintza partekatzeko Legesarea izeneko lankidetzaren eremuan argitaratuko da agindu hau. Araua prestatzeari dagokionez, xedapen orokorrak izapidetzeko ereduak erabiliko da, bai eta Tramitagune izeneko aplikazio informatikoa ere, izapidetze elektronikoa egiteko balio du eta. Hori guztia, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartu zituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiarekin bat etorrira.

Noël d'Anjou Olaizola
OGASUN ETA FINANTZA SAILBURUA